

Erakusketa

Vivre sa vie  
Georges Dambier eta moda

Prentsa-txostena

CRISTÓBAL BALENCIAGA MUSEOA

B

Vivre sa vie  
Georges Dambier et la Fondation

Exposición  
22.05.2026 — 13.12.2026

## Vivre sa vie Georges Dambier eta moda

1940ko hamarkadaren amaieran, gerraosteko giro itxaropentsuan, Parisek modaren munduko hiriburu estatusa berreskuratu zuen, eta goi mailako jostuntza Frantziako industria nagusietako bat bilakatu zen.

Goi mailako jostuntzak benetako urrezko aro bat bizi izan zuen orduan, feminitate modernoaren oinarriak definituko zituzten modako etxeen nagusitasun sortzaileak markatuta: Dior, Chanel, Givenchy, Fath, Balenciaga...

Oro har, pertsona famatu horiek Parisko agertokian nagusi izateaz gain, modaren norabidea markatu zuten eskala globalean. Haien sortze-lanak aldizkariak, saltoki handiek eta nazioarteko bezeroek erreproduzitu, berrinterpretatu eta zabaltzen zituzten, goi mailako jostuntzak eragile kultural eta ekonomiko gisa zuen eragina indartuz.

1945ean Héléne Gordon-Lazareffek sortuta, *ELLE* aldizkariak emakume emantzipatu eta etengabe eboluzionatu baten irudia transmititzen zuen, garaiko modako prentsarekin kontraste nabarmenean.

Georges Dambier (1925-2011) argazkilaria goi mailako jostuntzaren mundu eksklusiboan sartzea bi emakume izan zituen eragile: Françoise Foucault (Dambierren emazte bihurtuko zen modelo gaztea) eta Lazareff bera (moda-argazkilaritzan Dambierren karrera bultzatu zuena eta 1950eko eta 1960ko hamarkadetan goia jo zuena).

Ikuspegi aitzindari batekin, Dambierrek, modeloak kalera atera zituenean, estudioko argazkigintzaren konbentzioak hautsi zituen, pose zurrunetatik eta jarrera estereotipatuetatik askatuz, baina exekuzio tekniko zorrotz eta bikainari uko egin gabe. Paris aukeratu zuen estudio gisa; Place Vendôme, Montmartre, Champs-Élysées, rue de la Paix, La Seine hark berak deitu zuen *Couture en mouvement* joera baten eszenatoki bihurtu ziren.



Georges Dambierren espirtu kartsu eta jakinguratsuak, Hélène Gordon-Lazareffen ikuspegi abangoardistak eta 1950eko hamarkadako bidaien demokratizazioak aliantza perfektua osatu zuten *turista-argazkilari* kontzeptuari forma emateko. Urrutiko helmugetan (Marokon, Jugoslavia ohian, Brasilen, Antilla Frantsesetan, Tahitin edota Zeilanen) moda-editorialak ateratzea proposatu zion Dambierrek *ELLE*-ri, emakume libre eta bidaiari bat protagonista hartuta.

Dambierren obran, emakumea ardatz nagusi eta eztaba daezin bihurtzen da. Zinemak eta *Nouvelle Vague*-ren estetikak eraginda, Dambierrek emakumea ahalduntzen duen eta iragankortasuna gainditzen duen edertasun bat atzematen du: kartsua, argitsua eta guztiz denboragabea.

Erakusketa-proiektuak Jean-Luc Godarden *Vivre sa vie* (Bizitza bizitzea, 1962) film existentzialistatik hartzen du izena. Nanaren antzera (Anna Karinak antzeztutako pertsonaia nagusiaren antzera), Dambierrek fotografiatu zituen emakume eder guztiek askatasunez eta inhibiziorik gabe bizi izan zituzten beren bizitzak, konbentzioak hautsiz, oraindik nagusiki maskulinoa zen mundu batean.



© Georges Dambier Photos

Suzy Parker. Place du Tertre, Paris  
Balenciaga / *ELLE*, 1953

## Erakusketa

Moda eta argazkigintza, hasiera-hasieratik, tresna ahaltuak izan dira denbora eta memoria esploratzeko. *Vivre Sa Vie. Georges Dambier eta Moda* erakusketak Parisko goi mailako joskintzaren testuinguruan murgiltzera gonbidatzen gaitu, berrogeita hamarrek hamarkadan, argazkilari frantziarraren begirada bereziaren bitartez.

Erakusketa Aldamar Jauregiko aretoetan antolatu da, Museoko *Cristóbal Balenciaga, Teknika, Materia eta Forma* bilduma eta Balenciaga eta Givenchyren arteko konexioak jorratzen dituen *The Givenchiaga Family* aldi baterako erakusketa lotzen dituen ibilbide bat osatuz.

Ibilbidea goi mailako jantzigintzari buruzko diskurtso batekin amaitzen da, modaren sektoreko prentsaren azkeneko begirada txertatuz: editoreek eraikitako, argazkilariak interpretatutako eta modeloek hezurmamitutako ikuspegia, alegia, uneko moda itzuli eta gizarteari hurbiltzen diona.

Erakusketaren komisarioa Anabela Becho modaren historialaria eta erakusketa-komisarioa da, Guillaume Dambier *Georges Dambier Photos* bildumaren kontserbatzailearekin lankidetzan estuan.

Hautatu diren 77 argazkiak Dambierren lanaren eta garaiko gizartearen adierazgarri diren zazpi gai ditu ardatz, Balenciaga eta Givenchyri buruzko atalekin: *Eszenatokia: moda-argazkigintza agerian, Errrealia eta surrealista, Balenciaga Dambierren begiradapean* (Hubert de Givenchyren lehen moda-desfilea barne), *Goi-mailako joskintzaren espirtua, Emakume bat hirian, Bidaia baterako gonbita eta Eguzkipean goxo*.

*Georges Dambierren argazkigintzak goi mailako joskintza berritu bat erakusten digu, moda guztiz moderno baten prisma ikusita. Argazkilari frantziar honen obran, denbora eta memoria Parisko joskintzarekin eta tradizioekin elkartzen dira, eta ondorioz, modaren historiako urrezko garai baten testigantza garrantzitsua aberastu zuen.*  
—Anabela Becho erakusketa-komisarioaren hitzetan

## Goi- mailako joskintzaren espiritua

Capucineren eta Bettinaren erretratuek goi joskintzaren irudi sinbolikoa gorpuzten dute, hain kodifikatua eta hierarkikoa den mundu hori. Bi modelo horien aurpegiek (1950eko hamarkadako enblematikoenak agian) Parisko modaren urrezko aroa irudikatzen dute, osagarriek (kapelek eta eskularruek, esaterako) leku nabarmena zuten garai batean.

Materialen sofistikazioak eta kalitateak agerian uzten dute ehungintzak eta dekorazio-arteek goi mailako joskintzaren sorkuntza-prozesuan duten garrantzia. Bigarren Mundu Gerrako murrizketen ondoren, bereziki materialei eta ehunei dagokienez, 1947ko *New Look* delakoak bultzada berri bat eman zion kapelagintzaren arteari. Oso handiak eta deigarriak hasieran, kapelak *look totalarekiko* proportzioaren eta bolumenaren arteko oreka perfektua aurkituz joan ziren pixkanaka. Historian, orientalismoan edota fantasia apetatsu batean inspiratuta, kapelak azken ukitua bilakatu ziren, garaiko dotoreziaren eta silueta estilizatuen arketipoa.



© Georges Dambier Photos

Bettina / Legroux / 1953

## Balenciaga Dambierren begiradapean

Cristobal Balenciagak 1947an atera zuen neurrira erdi egokitutako lerroa; lerro honek bizkar aldera jaisten zen bolumen drapeatua zuen ezaugarri, gerria leunki estutzen zuen aurrealde neurrira egokitu batekin kontrastean. Nahiz eta harrera orokorra ez zen berehalakoa izan, siluetaren sinpletasunak eta ebaketaren konplexutasunak prentsa espezializatua bultzatu zuten lerro hura oparo zabaltzera. Laster mugarri bihurtu zen etxearen historian.

1952ko eta 1953ko udako bildumetan, Balenciagak estilo hori aztertu zuen bi piezako soinekoetan eta jantzietan. «Gerri zehatzik gabe, baina gerriko kurbatu bat bizkarraren behealdean duela, gerriko honek aldakak bihurtzen ditu emakume gorputzaren ardatz berri. Bere soineko guztietan, Balenciagak gerri baxua azpimarratu zuen, 1920ko hamarkadako estilora. Jantzi hau ez da muturreko kasu bat. Baina tipikoa da: soin nasaia, gerri baxua» (*ELLE*, 1953ko martxoaren 2a)

Georges Dambierren argazkiek Balenciagaren sortze lanei buruz eskaintzen dituzten ikuspegi ezberdinek piezak ia 360 gradutan ikusteko aukera ematen digute, ebaketaren bikaintasun teknikoa eta euskal jostunaren sortze lanen xehetasunen aberastasuna azalerratz, eta, aldi berean, sekuentzia narratibo zinematografikoak sortuz.



© Georges Dambier Photos

Nina, Paris / Balenciaga / 1955

## Givenchyren lehen moda-desfilea

Paris, 1952ko otsailaren 2a. Goi mailako joskintzako etxeetan udako bildumen aurkezpen egutegiek «astinaldi bortitza jasan zuten, deskarga elektriko baten edo superbitaminekin bizkorturiko indargarri baten oso antzekoa» (*ELLE*, 1952ko martxoaren 3a)

Aldizkariak (Hélène Lazareff fundatzailearen abangoardiaren eta espiritu librearen defendatzailea) gogo biziz deskribatu zuen Hubert de Givenchyren lehen moda-desfilea (Givenchyk garai hartan 24 urte zituen). Georges Dambierren argazkiek testua laguntzen zuten; Lazareffek sortutako aldizkarirako argitaratu zuen lehen lana izan zen, eta Lazareffek berehala antzeman zuen argazkilari gaztearen ahalmena.

Desfileak ordu eta erdi iraun zuen eta 75 modelo izan zituen. Givenchyren goi joskintza desinhibituak ezin hobeto erantzuten zien bere garaiko bizitzaren eta emakumeen eskakizunei, prêt-à-porter-etik hurbil. Hubert de Givenchyren berrikuntza nagusien artean bi hauek dira azpimarratzekoak: kotoi xumeari balioa ematea, eta, janzki bereziak (elkarren artean konbina zitezkeenak).

Givenchy, orduan, Parisko goi mailako mundu eksklusiboan (eta oso kontserbadorean) sartu zen, ausardiaz eta erabakitasunez beterik. Jostun gaztearen sormena eta grina nabarmenak ziren. Hala ere, Givenchyren perfekzionismo teknikorik eza nabari zen, baita haren mentore Cristóbal Balenciagarentzat ere, exekuzio bikainaren maisuak Givenchy «kritikatzen, zuzentzen eta animatzen baitzuen». (Bettina Ballard, *In My Fashion*).

Lazareffen eskutik, *ELLE*-k bere garaia ulertu zuen, sormena eta askatasuna sustaturik. Georges Dambierrek zeregin aktiboa bete zuen Parisko modaren tradizioaren berrikuntzan. Dambierren ikuspegi desinhibituak gaztetako joskintza gazte eta kartsu bat erakutsi zuen, oso modernoa, tradizioaren eta estilo garaikidearen arteko orekan.



## Emakume bat hirian

Fotokazetaritzan ibilia, Dambier, modeloak estudioaren giro kontrolatu eta artifizialek atera zituen lehen argazkilari frantziarretako bat izan zen, moda-argazkigintzaren jarrera eta keinu estereotipatuak bazterturik. Askatasuna eta giro librea, momentua osorik eta naturaltasun osoz bizitzeko nahia ezaugarri izanda ere, Dambierren argazkigintzak inoiz ez zuen alde batera utzi teknika zorrotza eta delikatuak. Georges Dambierrek goi jostintzaren mundu ahalguztiduna desmitifikatu eta mugimenduan (*Couture* mugimenduan) jartzen du, bizitza modernora eta emakumeen emantzipaziora hurbilduz.

Paris bihurtu zen berak aukeraturiko estudio: espazio erreal, pribilegiatu eta teatral bat. Emakumerik ederrenak jostun paristarren sortze lan sofistikatuekin jantzita, Dambier kalera irten zen. Place Vendôme, Montmartre, Champs-Élysées, rue de la Paix, La Seine... Paris ere emakume xarmagarri bat da, argazkilariak bere begiradaren bidez hilezkortu egiten duena, grinaz, umorez eta *flâneur* espirituz.



© Georges Dambier Photos

Ivy Nicholson, Paris / Christian Dior / 1954

## Eszenatokia: moda-argazkigintza agerian

Modaren argazkigintzak irudimena liluratzeko eta pizteko gaitasun handia du. Aurretikoa zuen ilustrazioak bezala, argazkigintzak ere toki nabarmena eta konplexua du modaren munduan. Kontsumitzaile potentzialentzat, arroparen bi dimentsioko irudikapena da, oro har, azken joeretara iristeko lehen puntua ( eta askotan bakarra).

Kontaktu bisual horrek estilo jakin batekiko desira eta nostalgia piztu ditzake. Argazkiak zabaltzeko bidea iragankorra eta hauskorra izan ohi den arren (aldizkariak eta egunkariak), argazkigintzak —denborari eta memoriari buruz hausnartzeko tresna pribilegiatua— modaren historia eta sektorearen bilakaera-uneak hilezkortzen ditu.

Sekzio honetan aurkezten diren hiru argazkietan Ninak (Balenciagaren jantzi batekin), Gunillak (Givenchyren jantzi batekin) eta Bettinak (Diorren konjuntio batekin) arbel bati eusten diote; bertan, erreportajearen xede den aldizkariari adierazten zaio jantzita daramatzaten jantzien diseinatzailearen izena eta argazkiak hartu ziren data, argitalpen datararekin bat ez datorrena, jakina, eta, horrela, argazki saioaren zirrikituak erakusgai jartzen dira.



© Georges Dambier Photos

Bettina, Quai Alma-Marceau, Paris  
Christian Dior / 1955

## Errealia eta surrealista

Eskakizun komertzialetatik haratago, modaren argazkigintzak nolabaiteko askatasun narratiboa hartu zuen XX. mendean zehar, bere gai nagusitik —modaren gaitik— askoz haratago zihoazen istorioak sortuz. Beste diziplina bisual batzuei buruzko erreferentziak (pinturari, arte grafikoei, antzerkiari eta zinemari buruzkoak) etengabeak ziren.

Hasiera-hasieratik, Georges Dambierrek inspirazio iturri bat eta hainbat ukigune aurkitu zituen irudimen zinematografikoan. Modari buruz duen ikuspegiak askatasunez eta independentziaz bizi den eta *Nouvelle Vague*-ren espirtua iragartzen duen emakume emantzipatu bat irudikatzen du.

Zenbaitetan, bere moda-argazkigintzaren eta arte eszenikoen arteko elkarrizketa aipamen hutsetik haratago doa. Argazki saio batzuetan eszenatokia, eszenaratzea, erreferentziak eta modeloak eurak zinemaren eta antzerkiaren munduan inspiratzen dira argi eta garbi.



© Georges Dambier Photos

Fiona Campbell-Walter, Paris  
Marc Bohan / 1953

## Bidaia baterako gonbita

Georges Dambierren espirtu kartsu eta jakinguratsuak, Hélène Lazareffen ikuspegi abangoardistak eta 1950eko hamarkadako bidaien demokratizazioak aliantza perfektua osatu zuten turista-argazkilari kontzeptuari forma emateko.

Frantziaren eta Italiaren ondoren, beste bidaia batzuk heldu ziren: Maroko, Korsika, Jugoslavia ohia, Espainia, Portugal, Brasil, Ingalaterra, Antilla Frantsesak, Tahiti eta Zeilan. Dambierren erreportaje tankerako estiloak arintasun ukitu bat eman zien bere moda-argazkiei; unea berezkotasunez eta argitasunez harrapatu zuen.

*Georgesek argazki bakoitza eszena bizi eta adierazkor bihurtzen zuen. Hari esker, moda-argazki saioek estatikoak eta zurrinak izateari utzi zioten. Dambierren erreportajeak istorio bat kontatzen zuen.*  
—Anne Rivemale, *ELLE* aldizkariako moda-editorea



© Georges Dambier Photos

Taïna, Maroko  
Givenchy / 1953

## Eguzkipean goxo

Georges Dambierren nortasunak eta ikuspegiak oihartzuna aurkitu zuten aldaketa sakonak bizi zituen gizarte batean. Bizitzarekiko zirrara eta arintasun eta argitasun irrika argazkilari gazte honen ezaugarri bereizgarri bilakatu ziren; izan ere, bera sakon markatu zuen mundu mailako gatazkaren iluntasunaren aurkako antidoto bat bilatzen zuen.

Paris askatu ondoren, Willy Rizzo argazkilariaren laguntzaile bihurtu zen, eta argazkigintzan arte-mota berri bat aurkitu zuen, arte horren zolitasunak berehala menderatuz, batez ere argiaren erabilera.

*ELLE* eta *Nouveau Femina* aldizkarietan, Hélène Lazareffek lan egiteko autonomia handia eman zion, batez ere oporretako moda-saio ospetsuetan. Sormen askatasun horri esker, emakumeen irudia transmititu ahal izan zuen, bizitzeko poza eta nolabaiteko naturaltasuna ezaugarri zituena, ingurunearekin harmonian. Emaitza eguzkiak bustitako argazkiak dira, Georges Dambierren nortasuna islatzen dutenak eta itsasoarekin batera bizitzarekiko maitasuna erakusten dutenak, bereziki Frantziako hegoaldean eta euskal kostaldean.



© Georges Dambier Photos



© Georges Dambier Photos

Marie-Hélène Arnaud, Eden Roc Hotel, Cap d'Antibes / 1957

## Georges Dambier Biografia

1925

Georges Dambier apirilaren 5ean jaio zen Issy-les-Moulineaux-en, Parisko auzo batean, klase ertain-baxuko familia batean. Haurtzaro zoriontsu eta kezkarik gabea izan zuen. Udak Chaufourg-en igarotzen zituen, aitona-amonen etxaldean, Périgord eskualdean. Naturarekin harremanetan, beti maitasunez gogoratuko zituen askatasun eta plazer uneak bizi izan zituen.

1939

Bigarren Mundu Gerra hasi zenean, gurasoek Biarritzera bidaltzea erabaki zuten, aitaren aldeko aitona-amonen etxera; han, behin-behineko institutu batera joan zen, oportetako txalet dotore batean. Ikasturte hartan Roland Barthes ezagutzea erabakigarria izango zen Georges gaztearen garapen intelektualerako, ordura arte nahiko ikasle distraita izan baitzen.

1942-1945

Pariserantz itzulita, marrazketa, pintura eta publizitate diseinua ikasi zituen Paul Colinen estudioan (ordurako ezaguna zen bere obra grafikoagatik eta Josephine Bakerren *Revue Nègre*-rako kartelak sortzeagatik). Colinek eragin handia izan zuen Georges Dambierren berezko talentu bisualaren garapenean eta gustu estetikoan.

1946

Kazetaritzan hasi zen *Point de Vue* asteroko aldizkariaren diseinatzaile gisa; aldizkari hura errege-familiaren albisteetan espezializatuta zegoen, eta bertan, Willy Rizzo argazkilari italiarra ezagutu zuen. Ondoren, *But Club* kirol aldizkarian sartu zen, hasieran prentsako argazkilari laguntzaile gisa.



1947

Otsailean, zorte-kolpe bati esker, Rita Hayworthen argazki batzuk hartzea lortu zuen. Hollywoodeko izarraren lehen argazkiak argitaratu zituen prentsan, eta bere ibilbidea hazten hasi zen. *France-Soir* taldeak kontratatu zuen, eta han Pierre Lazareffekin lan egin zuen. Albisteetan eta pertsona ospetsuetan espezializaturiko *France Dimanche* aldizkariako fotokazetari gisa, une batzuk betikotu zituen eta artearen, kulturaren eta gizartearen arloko pertsona garrantzitsuei atera zizkien argazkiak. Georgesek izugarri maite zuen bere lana: gaueko bizimodu bohemiarrean ibiltzen zen, bidaiatzen zuen eta Parisko goi gizartearekin tratua zuen.

1951

*France Dimanche* utzi eta moda-argazkigintzan hasi zen; eta 1950eko eta 1960ko hamarkadetan gero eta gehiago murgildu zen jarduera horretan. Hélène Lazareffek *ELLE*-rekin kolaboratzera gonbidatu zuen (1945ean hark berak sortutako aldizkari bat zen). Espiritu iraultzaile batez, Lazareffek jostun paristarren sortze lan ederrak demokratizatu eta emakumeen eskura jarri nahi zituen. Georgesek begirada zorrotz eta desinhibituak ezin hobeto adierazten zuen *ELLE*-k transmititu nahi zuen emakume modernoaren ikuspegi emantzipatua.

1952

Hubert de Givenchyk *ELLE* aldizkarirako egin zuen lehen moda-desfilea fotografiatu zuen Dambierrek otsailean; hauxe izan zen aldizkarian argitaratu zuen lehen lana. Ekainean, *ELLE*-k lehen orria bete zuen moda-erreportaje argitaragabe bat publikatu zuen: Georgesek eta Françoisen Italiara egindako bidaia; argazkiekin batera zetorren bidaia-egunkaria, berriz, Françoisen idatzi zuen. Hauxe izan zen Georges Dambierren lehen moda erreportaje handia, *ELLE* aldizkarian argitaratua. *ELLE*-rako egindako lanarekin batera, argazkilari independente gisa eta zuzendari artistiko gisa jarraitu zuen lan egiten.

1954

Bere lagun Robert Capak Magnum agentziaren barruan moda-argazkilaritza sail bat sortzera gonbidatu zuen. Zoritxarrez, proiektua ez zen inoiz gauzatu, Caparen ustekabeko heriotza dela-eta Vietnamen.

1955

Yves Colleau (natura hilean espezializatutako argazkilaria) eta Jean-Pierre Rossignol (fotokazetaria) bazkideekin batera, C.D.R.T. (48, rue de la Bienfaisance) laborategiak sortu zituen. Geroago, bazkideen partaidetzak erosi zituen. C.D.R.T. —*Conception, Diffusion, Réalisation et Tirage* (Sorkuntza, Banaketa, Ekoizpena eta Inprimaketa)— lantegiak estudio bat, laborategi bat eta diseinu grafikoko eta publizitateko bulego bat zituen; horri esker, prozesu osoa kontrolatu ahal izan zuen: argazkiak hartetik hasi argazkiak inprimatzeraino. *ELLE* aldizkariarekin egindako lanaz gain, beste argitalpen batzuekin kolaboratu zuen, besteak beste: *Nouveau Femina*, *Marie-France*, *Jardin des Modes*, *Jours de France*, *L'Express* eta *Vogue* aldizkariekin. Publizitate agentzia eta marka komertzial garrantzitsuekin ere lankidetzara iraukorak izan zituen.

1964

Dambierrek, lagun batzuekin batera, izpiritu gazte eta transgresorea zuen *Twenty* aldizkaria sortu zuen, *L'Express* aldizkarian eta *Jeunesse Cinéma* mugimenduan oinarrituta.

1976

Maurice Siegelekin batera, *VSD* (*Vendredi, Samedi, Dimanche*) aldizkaria diseinatzeko proiektua jarri zuen martxan, eta bertan hasi zen erredaktore buru eta zuzendari artistiko lanetan. Hurrengo urtean argazki saileko buru izendatu zuten.

1990

Paristik alde egitea erabaki zuen, eta Chaufourgen, Dordoina aldean, hain maite zuen familia-etxaldean finkatu zen behin betiko, non hotel boutique txiki bat jarri baitzuen. Izaeraz gizartekoia izanik, gustura hartzen zituen Parisen intentsitate handiz bizi izan zen bitartean ezagutu zituen artista eta pertsona ospetsuak.

2004

Guillaume semeak ere Paristik alde egitea erabaki zuen, Dordoinako familia-etxaldean aitarengandik gertuago egoteko. Pazientziaz eta erabakitasunez, Guillaume Dambier aitaren ondare zabalean eta haren memorietan murgildu zen, anbizio noble batek gidatuta: aitaren artxiboak berrosatzea. Bere seme zaharrenari esker, Dambierren obra fotografikoak merezitako berpizkundea izan du, haren izaera paregabe eta originala erabat jasorik.

2007

Hainbat erakusketa antolatu dira: *Collections Années 50*, Ribérac Cultural Centre, Frantzia; *Georges Dambier: À la mode*, Bonni Benrubi Gallery, New York, AEB.; *Georges Dambier: À la mode*, Michael Hoppen Gallery, Londres, Erresuma Batua.

2008

Georges Dambierren *Paris Fifties*, *Regards de mode* liburuaren argitalpena, Paris, Éditions R.amsay

2011

*Who's That Girl? Georges Dambier Fashioning the Fifties* izeneko erakusketa; Bonni Benrubi Galerian, New York, Estatu Batuak. Hilabete batzuk geroago, maiatzaren 30ean, Georges Dambier hil egin zen, Frantziako Dordoina eskualdeko bere etxean.

Georges Dambierren lana gaur egun hainbat museo, galeria eta bilduma pribatutan dago erakutsita, besteak beste *Palais Galliera-n*, *Musée de la Mode de la Ville de Paris* ere deituan (hogeita sei kopia esanguratsu kontserbatzen ditu).



# Cristóbal Balenciaga Museoa

Cristóbal Balenciaga Museoa 2011. urteko ekainaren 7an zabaldu zituen ateak. Jostunaren jaioterrian dago kokatua, Cristóbal Balenciagaren lehenengo prestakuntza-urteen eta heldutasun profesionalaren oroimenez eta modaren munduari egindako ekarpenak ulertzeko helburuarekin.

Balenciagaren bizitza eta lana, modaren eta diseinuaren historian izan zuen garrantzia eta bere ondarearen garaikidetasuna ezagutzera emateko helburuarekin, bilduma aparta du museoak. Oso bilduma zabala da —5.100 pieza baino gehiago inguru ditu, baina etengabe ari da handitzen, gordailuei eta dohaintzei esker—, eta hedadura formal eta kronologiko handia du —jostunaren modelo zaharrenak daude, esaterako—; bi ezaugarri horiei esker, gaur egun dagoen bildumarik osatu, koherente eta interesgarriena da.

Bildumaren beste balio ezohiko bat piezen jatorria da; izan ere, Balenciagaren nazioarteko bezero handiak XX. mendeko gizarteko pertsonaia aipagarriak izan ziren: Mona Von Bismarck, Rachel L. Mellon, Patricia López Wilshaw, Barbara Hutton, Lilian Baels, Grace Kelly edota Madame Bricard, besteak beste, Artxiboetan dauden modeloak jantzi zituzten.



© Cristóbal Balenciaga Museoa / Idoia Unzueta

Zuriñe Abasolo Izarra  
Komunikazio arduraduna

zurine.abasolo@fbalenciaga.com

T +34 943 004 777

M +34 647 410 775

Aldamar Parkea 6  
20808 Getaria  
T +34 943 008 840  
info@crislobalbalenciagamuseoa.com  
www.crislobalbalenciagamuseoa.com

# B

CRISTÓBAL BALENCIAGA MUSEOA

